

CIC biomaGUNEk nazioarteko talentua erakartzeko programa anbiziotsu bat jarri du abian

BREATH programa Europako funtsekin kofinantzatuta dago, eta helburu du doktoratu ondoko 12 ikertzaile erakartzea gaixotasunak diagnostikatzeko eta tratatzeko soluzio aurreratuak garatzeko

CIC biomaGUNE izango da biomaterialen arloko puntako ikerketa Euskadiko industria- eta osasun-sarera hurbilduko duen programaren liderra

Donostia, 2025eko azaroaren 19a CIC biomaGUNEk doktoratu ondoko programa aitzindari bat jarri du abian, [BREATH](#), 24 hilabetez 12 ikertzaile nazioartean oso lehiakorra den prestakuntza-programa baten bidez prestatzeko helburuarekin. BREATHek harremanak estutu nahi ditu biomaterialen arloko abangoardiako ikerketaren eta soluzio biosanitario aurreratuaren artean. Horretarako, etorkizuneko ikertzaileei aukera ematen die beren aurrerapenak sektore biosanitarioaren berrikuntzan aplikatzeko, minbizia, gaixotasun kardiobaskularrak, neurodegeneratiboak eta beste zenbait gaixotasun diagnostikatzeko edo tratatzeko soluzio aurreratuak garatuz.

BREATH proiektua (*Boosting Future Researchers in Biomaterials for Advanced Health Solutions*) Europar Batasuneko Horizon Europe programak kofinantzatzen du, Marie Skłodowska-Curie ([MSCA](#)) ekintzen [COFUND](#) esparruan. Programa CIC biomaGUNEK diseinatu du bereziki, "mundu osoko talentu handiko ikertzaile gazteak erakartzeko, baldin eta beren ibilbidea osasun-soluzio aurreratuaren berrikuntzari aplikatutako biomaterialen mugako ikerketan garatu nahi badute", adierazi du Aitziber L. Cortajarena Ikerbasque irakasle eta CIC biomaGUNEko zuzendari zientifikoak.

Talentua erakartzea

BREATH programak talentua erakartzeko bi deialdi aurreikusten ditu. Lehenbiziko deialdia duela gutxi argitaratu dute, eta hiru hilabetez egongo da zabalik. Bertan, doktoratu osteko lehenengo sei ikertzaileak hautatuko dira. Hautagaiek CIC biomaGUNEren estrategia zientifikoarekin bat datorren proposamen zientifiko bat aurkeztu beharko dute. Bigarren deialdia 2026ko azarorako dago aurreikusita.

Doktoratu ondoko programak aukera ematen du hainbat gaixotasunen tratamenduari edo diagnostikoari aplikatutako biomaterialen arloko proiektuak ikertzeko eta garatzeko; hau da, lan egin ahal izango dute "CIC biomaGUNE egunero aurre egiten zaien hainbat erronkatarik, hala nola nanoegitura eta biomaterial funtzionalak diseinatzeko eta horiek prozesu biologikoak ulertzeko eta terapia berriak garatzeko tresna gisa erabiltzeko ikerketetan", nazioartean izen handia duten CIC biomaGUNEko ikertzaileen zuzendaritzapean. Gainera, "programak sektorearteko, diziplinarteko eta nazioarteko prestakuntza sustatu nahi du, eta bekadunen etorkizun profesionalak bultzatu", erantsi du BREATH proiektuaren kudeatzaile Aitor Marcosek.

Goi-mailako partzuergoa

Helburu horiek betetzeko, BREATHeK askotariko [aliantza](#) bat du, honako hauek osatua: nazioartean aintzatetsitako 12 ikerketa-erakunde, bioteknologia-, osasun- eta farmazia-sektoreetako 13 enpresa (horietatik 11 Euskal Autonomia Erkidegoan daude) eta osasun-ikerketako 4 erakunde (Bioaraba, Biogipuzkoa, Biobizkaia eta Nafarroako Unibertsitate Klinika). Gainera, BREATHen bazkide-ekosistemak berrikuntzako lau erakunde publiko-pribatu ditu, eta horien helburu nagusia da goi-mailako prestakuntza ematea berrikuntzaren, teknologiaren transferentziaren eta ekintzailetzaren arloan.

Marcosek azpimarratu du garrantzitsua dela partzuergo bat eratu izana, non “Euskal Herriko zein estatuko biomedikuntzaren eta farmaziaren sektoreko ETEak inplikatu baitira. CIC biomaGUNErentzat garrantzitsua izan da enpresa txiki horiengana hurbiltzea”. Era berean, “bekadunei European egonaldiak egiteko aukera emango dien partzuergoa osatzen duten nazioarteko ikerketa-erakundeen maila handia dela” azpimarratu du. Izan ere, doktoratu ondoko ikertzaileek nazioarteko eta enpresako egonaldiak egin beharko dituzte beren prestakuntza osatzeko.

Bestalde, Marcosek adierazi duenez, proiektuen alderdi kliniko posibleak garatzen lagunduko duten osasun-ikerketako erakundek “lehiakortasun oso handia ematen diote partzuergoari”. Eta erantsi du Mondragon Unibertsitatea, Donostia Sustapena, Bic Gipuzkoa eta Innobasque bezalako erakundek prestakuntza osatuko dutela ikerketaren emaitzak bioosasunaren merkatura transferitzeko beren ezagutzarekin. “Ekosistema horrek guztiak industriaren eta ikerketaren arteko harremana bultzatzen lagunduko du”, amaitu du.

CIC biomaGUNEren lana aitortzea

Europar Batasunak doktoratu ondoko programa hori emateak aitortu egiten du CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak egiten duen lana. “Harro gaude halako doktoretza ondoko programa garrantzitsu bat gauzatzeko CIC biomaGUNE jarritako konfiantzaz; izan ere, benetan egingo die aurre biomaterialekin loturiko ikerketaren arloko erronkei eta prestakuntza lehiakorra emango die doktoratu osteko ibilbidearen hastapenetan dauden ikertzaileei, beren karrera profesionalean aurrerapauso bat emateko aukera emango baitie”, adierazi du Cortajarenek.

Partzuergoa osatzen duten enpresak

AJL, Asparia, Aquadat, Biolan, Domotek, GlobalPET, Graphenea, I+Med, Innoprot, Microliquid, Nanobots Therapeutics, Oncomatrix eta Polykey Polymers.

CIC biomaGUNEri buruz

[CIC biomaGUNE](#) Biomaterialen Ikerkuntza Kooperatiboko Ikerkuntza Zentroa Basque Research and Technology Alliance ([BRTA](#)) aliantzako kide eta irabazi asmorik gabeko ikerketa-zentro bat da, Donostian kokatua, kimikaren, biologiaren eta fisikaren arteko

interfazean abangoardiako ikerkuntzan jarduten duena, arreta berezia eskainiz maila molekularreko nanoegitura biologikoen propietateen eta haien aplikazio biomedikoen azterketari. 2018an, "María de Maeztu" Bikaintasun Unitate gisa aitortu zen bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, hau da, inpaktu eta lehiakortasun-maila handia izateagatik bere jarduera-eremuan, munduko agertoki zientifikoan.